




Imanol  
Galfarsoro

## «Independentzia prozesuak eratzen du independentziaren subjektua»

Slavoj Zizek pentsalariaren ideiak baliatuz, Imanol Galfarsororen (Aretxabaleta, 1960) *Subordinazioaren kontra* (Pamiela) saiakerak kritika zorrotza egiten die Bernardo Atxagak eta Joseba Zulaikak Euskal Herriko egoera politikoaz egindako hainbat irakurketari. Kultur-aniztasun militantearen aldekoa, liburuan independentzia politikoaren garrantzia azpimarratu du, euskaldun etniko izateari uzteko bide gisa.

GORKA BEREZIARTUA

Argazkiak: Donna Lucy

Diskurtso multikulturalistaren uholde betean, liburu honek presa lana egin nahi duela dirudi.

Ez nuke esango *Subordinazioaren Kontra* kontentzio dikea izateko bokazioarekin idatzi nuenik. Liburuxo hori kokatzen da azken bizpahiru hamarkadetan isil-misilean landu den testuinguru intelektual berri batean, orain loratzen ari dena. Berriro ere, borrokaren, hegemoniaren eta antagonismoaren hiz-

kuntza kritikoa lau haizetara barreiatzen ari da.

**Bestelako diskurtso politikoa, beraz.** Gaur egun diskurtso multikulturalista ofizialak diferentziaren administrazioa dakar, desberdintasunaren kudeaketa aditua. Horregatik dira egokiak, gaur egun, bizi-tanke-  
ra berezien —etnikoak, sexualak...— aldeko identitate-fragmentazio eta proliferazioaren politika postmo-

dernoak. Horregatik kabitzen da diskurtso hori egungo erregimen global, liberal-demokratiko, kapitalista eta post-politikoan; politikarik gabeko politikan oinarrituriko gizarte ondo kudeatuaren nozioan laburtzen da. Slavoj Zizeki jarraituz, politikaren kulturalizazioan oinarritzen da.

Zizekek *Violence* (2008) liburuan ezartzen duen bezala, kontua zera litzateke: “Gaur egungo hainbeste



Liverpoolen bizi da Imanol Galfarsoro, eta handik erantzun die gure galderei. Besteak beste, *Subaltern Studies* kolektiboan parte hartzen du, baita *Zizek Studies* aldizkarian ere.

arazo, zergatik sumatzen dira intolerantzia arazoak balira bezala, eta ez esplotazio edo bidegabekeria gisa? Zergatik da proposatzen den erremedioa tolerantzia eta ez emantzipazioa; borroka politikoa, edo baita borroka armatua ere? Berehalako erantzuna kultur-aniztasun liberalaren oinarriko operazio ideologikoan dago: politikaren kulturalizazioa. Ezberdintasun politikoak –desberdintasun politikoek edo esplotazio ekonomikoek kondizionatzen dituzten desberdintasunak– naturalizatu eta neutralizatu egiten dira, eta toleratu behar diren diferentzia ‘kultural’-tzat antzematen”.

**Baina diferentzia kulturalak izan, badira... Baztertu egin beharko genituzke eztabaida publikotik?**

Nire kritika ez da multikulturalismoaren kontra oro har. Esan nahi dut garai batean bazegoela, eta oraindik ere badago, halako kultur-aniztasun

**“Egirik ez dagoela dioen ikusmen ‘pluralista’-erlatibistak, desegin nahi du askapen mugimenduaren mami eraldatzailea”**

militantea, diferentzia kulturala politizatu eta unibertsalizatzen saiatzen dena. Zentzu honetan, beste liburu batean [*Kultura eta identitate erbestertuak. Nomadologia subalternoa*, Pamiela 2005] sumatzera eman nuen jada, norberaren identitate kultural eta sozialak –jenerozkoak, sexualak, klasea...– harreman aberats eta problematikoetan lardaskatuta daudela hainbat mugimendu sozialen borrokin batera –ekologismoa, feminismoa...–.

Euskal Herrian, esaterako, askapen mugimenduak gai eta jarrera horiek guziak oso berezkitzat bizi izan ditu azken hiruzpalau hamar-

kadetan, eta oraindik ere ditu bizitzen. Ondorioz, gaur egungo zenbait diseinuzko ezkertzeak aurrerakoi bagedunei zera bota behar zaie aurpegira; bat: pluraltasuna, mestizajea, errespetua eta halakoak hitz fetitxe bihurtzeaz gain, guztiz zaudete harrapatuta multikulturalismo neo-liberal post-politikoaren eremu humanista akritikoan; eta bigu geuk, aldiz, mestizajearen eta heterogeneitatearen gaiak, esate baterako, edota unibertsaltasuna eta partikularitasunaren arteko harremanari buruzkoa, aspalditik ditugu jorratzen, eztabaidatzen, borrokatzen... Gure bigarren “natura” osatzen dute.

**Liburuan zera diozu: “Batailatxo ideologikoren bat edo beste irabazteak ez dakar berez politikoki gauza bera gertatzen denik (...) marra batetik harago (gu) entretenitzeko iskilu bilaka daitezke”.**

Hegemonia politiko eta sozial berri baten aldeko borrokan, askapen mugimendua oinarritzen da uka ezin daitekeen borondate kolektibo batean. Jakina da, halaber, marra edo muga zehatz bat eratzen dugula bi talde antagoniko nagusi identifikatuz. Askapen mugimendua bultzatzen duen identitate herritarra, gizartearen zatiketa dikotomiko konkretu baten bitartez sendotzen da, bi eremu guztiz eta zeharo laburtezin eta inkompatible izendatuz.

Askatasunaren aldeko diskurtso politiko oso bat oinarritzea etsaiarekiko bereizketa zehatz horretan, aldebatekoia dela esan liteke; baina gatazka politikoa ez da batere balizkoa: benetako indar zapaltzaile eta indar askatzaileen arteko borroka hegemoniko zehatz batean dago antolatua.

#### Gatazka hor egonda, ordea, bestelako errealitateak ere badaude...

Gertatu izan dena zera da: azken hiruzpalau hamarkadetan diferentzia partikular batek —borroka nazionalak, alegia—, bera baino gehiago den osotasunaren ordezkaritza asumitu izan duela, kondentsazio prozesu baten bidez. Figura erretorikoa, hemen, sinekdokea izan da. Zehaztapen larregietan sartu gabe, askapen mugimendua aktore historiko moduan konfiguratu da aldarrikapen herritar eta demokratiko batzuen inguruan. Aldarrikapen herritarra —independentzia eta sozialismoa— eta aldarrikapen demokratikoak —mugimendu sozialak, identitate politikak, borroka feminista, gay eta lesbianen eskubideen aldekoa, ekologista, anti-arrazista...— desberdinak dira. Hala eta guztiz ere, batzuk besteen isla dira: aldarrikapen herritarra gizartean barne-muga antagonistiko zehatza artikulatuz gauzatu da, gure kasuan estatu zanpatzaileen eta Euskal Herria bere osotasunean ordezkatzaren duen askapen mugimenduari artean ematen dena. Aldarrikapen demokratikoek, berriz, diferentziaren logika dute oinarri, eta makina bat borroka partikularretan gauzatzen dira.

“Egia (...) perspektiba-distortsioek dakarten antagonismoaren benetako izaera da” diozu pasarte batean. Euskal Herriko politikaz idaztean, gehiegi errepikatzen den akatsa da ikuspegi “objektibo”-ak bilatu nahia?

Egia egon bada; ez dagoena da inpartziala den egiazko errealitatearik edo jakintza objektiborik. Egia egon bada, gainera, dena erlatiboa ez delako. Egia ez da, maiz joera pluralista erdikoietan aurreratzaren den bezala, erdian-edo kokatzen den multiplo komun gutxienekoa, makina bat jakintza eta ikuspuntu desberdin eta balio bereko antzemanez lortzen dena. Alderantziz, egia perspektiba distortsioetan ematen den egia bera da: ez “gaineke”, “kanpoko” edo “erdiko” perspektiba “neutral” alderdigabekotik ematen den azaleko egia, itxuraz distortsiorik gabekoa; ezta distortsio askoren arteko fruituak nahastetik sortzen den koktel pluralista modukoa ere.

Funtsezko azken egarik ez dagoela dioen ikusmen “pluralista”-erlatibistak, berdin desegin nahi du askapen mugimenduarien mami eraldatzaile benetakoa, azalduz gureak “balizko” gatazka batean murgilduta dauden independentziazaile “autode-nominatu” eta “ustezko” batzuen efektu ideologikoak direla. Eta bitartean, sinesten dute beraien hizkuntza garai-learekin —edo kolaboratzailearekin—, hainbat jarrera zibilizatu eta moderatu, eta zenbait kontzeptu “neutral” eta “ez-ideologiko”-ren jabe direla —operazio ideologiko bat, *par excellence*—.

Horren aurrean, zuk subjektibotasun engaiaituaren alde egiten duzu.

Independentzia lortzeko prozesuan garrantzitsuena, metahizkuntza politiko-objektibo baten ezintasuna

## Olaberriako zirkuitua

Gida eskola

Karting-a



Gainera auzoa, Z/G

20212 Olaberria

☎ 943 16 08 62

[www.vilarinomotor.com](http://www.vilarinomotor.com)

[info@vilarinomotor.com](mailto:info@vilarinomotor.com)



Bi saiakera argitaratu ditu Imanol Galfarsorok azken urteetan: *Kultura eta identitate erbesterratuak (Nomadologia subalternoak)* 2005ean eta *elkarrizketa honetan hizpide dugun Subordinazioaren kontra* 2008an, biak Pamielaren eskutik.

da. Independentziaren subjektuak ez du prozesua bideratzen distantzia objektibo baten bitartez. Independentziaren prozesuak berak eratu eta gauzatzen du independentziaren subjektua. Beraz, ezinezko da jakitea independentzia garaiz edo sasoiz lortzeko zein den une edo momentu egokia.

Horregatik, independentziaren prozesua errepikatu eta errepikatu

egin behar da garaipenaren baldintzapenak sortuz, eta independentziaren subjektu eta eragilearen itxaropenak –nire itxaropenak, alegia– honetan dirau: ekin eta jarrai, are, hutsera jaurti beharrez gero ere, gauzak ondo aterako baitira; independentziaren aldeko errotiko zeinu arriskutsuak burutuz, ondorio posible guztiak argi ikusteko gauza ez banaiz ere, arriskuak hartzeko eragiletasuna erakusten dut, gero dena ondo aterako denaren esperantzarekin... Fanatikoa, ez da hala? Autoritario! Seguru asko. Baina ez zait batere axola. Niri, oraindik ere, Rosa

**"Azken hiruzpalau hamarkadetan diferentzia partikular batek –borroka nazionalak–, bera baino gehiago den osotasunaren ordezkaritza asumitu izan du"**

Luxemburgen "espontaneismoa" atsegin zait, hor nonbait bere metaforizitate eraginkorrean.

Baina espontaneismo hori ez al dago kontraesanean askapen mugimenduen abangoardismoarekin?

Ez. Abangoardiosmoaren salaketa hori lehoi buztan izan nahi bainoago sagu buru direnen partetik datorrelako soil-soilik, beste inondik ere ez; gainera, gai zein arrazoiketa osagarri ezagun bezain bigun batzuk erabiliz: pluraltasuna, heterodoxia, "demokrazia"-ren inguruan... Espontaneismoak, bestalde, ez du lidergoaren beharra ukatzen, ezta diziplina edo antolakuntzaren balioa ere. Afrikako Kongresu Nazionala plurala zen eta espontaneoak ziren helburu zehatz baten bidean sortzen zituzten hainbat borroka modu, baina inork ez du gero esango Hego Afrikako askapen mugimendua abangoardista eta ortodoxoa zenik, edo Nelson Mandelaren buruzagitza intolerantzia oinarritzen zenik. ■

Herriko plaza z/g • 20150 ADUNA (Gipuzkoa)  
Tel. 943 69 34 81

**uztartza**  
ATERPETXEA eta JATETXEA

**Eguneroko menua**  
**Asteburuetan betiko sukaldaritza**